

B

BARREN

Legealdi erdiari errepassoa

Alfredo Etxeberria, alkatea



GOKI ERREFORMAK

Olaso Poligonoa 15 zbk. - 88 pabilioia
Tel.: 943 744 223 - 943 744 640 - 943 742 880
Faxa: 943 744 587
20870 Elgoibar

- ◆ ESKAINTZA BEREZIAK
- ◆ ESPOSIZIO ALDAKETA
- ◆ PREZIO ERAKARGARRIAK
200€-tik HASITA




1.200 €



300 €



800 €



520 €

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

Gure ondaria



Akaso edadiagaittik, klima aldaketiagaittik edota Patxilo lehendakarixa dalako edo, egunerokuan kolau jatan fenomeno batek zihero bildurtuta nauka: umiak. Orain gutxira arte, mundua normal zixen (euskal gatazkia, gerria han, krisixa hamen, kirola, musikia, mendixa, lagunak, eguenetako afarixa, barixakuko zerbezak...), baiña derrepente eta permisiorik eskau be, umiak indarra hartu debe nere egunerokuan. Gure edadeko jendia, lagun miñak, lagunen ezagunak, gero eta gehixago dira ume baten etorrerak euren bizitza bedeinkatu dittuanak.

Panorama hori ikusitta, eta ondokuaren bizarrak blai, gai honi buruz hausnarketatxo bat zuekin partekatzia gustauko jatan (epitafio merke bat).

Sekula ez naiz izan umezalia (txakurretaz gauza bera esaten nabari, eta gero Txato-kin txarrena naiz). Hala ere, hamar bat miñutuz aguantau neikez. Dune, esate baterako; berakin egoten naizenetan, txikittako ni ikusten dot bere begixetan. Hori don hori bitalidadia!! Ordia, gaueko 11:30ian bitalidade horrek lotan lagatzen ez didanian, berakin gogoratzen naiz, bere amakin, eta txikittako ni madarikatu horrekin ere! Umiekiko doten takto faltia osua da, nere lehengusiña Aroakin kaliai juntatzian, adibidez, Aimar eta Aitanak (urtebete eskas) begitzen diaben tonto aurpegi berakin begitzen diuet nik eureri ere. Bestalde, zergaittik komunikatzen gera umiekin ni Txato-kin (Ainara familiako boxer kuttuna) komunikatzen naizen modu berian?

“Aittan (edo aman) igual-iguala da! Bai politta, munduko umerik politxena da!!!”, –esaten dizu kaliai geratu eta ezagutzen ez dozun emakumiak-. Emakume horri zentzu eta koherentzia piskat eskatuko nioke; munduko gauza polittena da ala aittan/aman trazia dauka; bi gauzak kontrajarrak dira.

PD: Etorkezunian (demagun hamar urte barru, Ainara?), nere umiakin pasiatzen juango naizela, ez egidazue gogoratu eskutitz hau.

Iñigo Araujo

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Sekula ez naiz izan umezalia.
Hala ere, hamar bat miñutuz aguantau neikez”.**

**Zer iritzi dute
herritarrek
BARRENi buruz?**

**Ikerketaren emaitza
guztiak jarri ditugu
web gunean**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

ALFREDO ETXEBERRIA

ALKATEA

“Krisiaren eraginez murrizketak izango dira datorren urteko aurrekontuetan”

Bi urte pasatu dira Alfredo Etxeberria alkate izendatu zutenetik. Legealdiaren erdia egin du dagoeneko, eta balorazioa egiteko momentua iritsi da. Luze eta zabal hitz egin du BARREN astekariak alkatearekin. Besteak beste, orain arte eginikoak eta aurrera begirako asmoak azaldu ditu Etxeberriak. Herritarrek ere izan dute alkateari galderak egiteko aukera. BARRENEk eskerrak eman nahi dizkie galderak bidali dituzten guztiei. Elkarrizketa osoa eta herritarren galdera guztiak irakurtzeko sartu: www.elgoiBARREN.net atarian.

Nolakoak izan dira legealdiko lehenengo bi urteak?

Alkate izatea aberasgarria izan da, herri-gintzan lan egiteari balio handia ematen baitiot, eta lanpostu hau oso egokia da horretarako. Lehenengo bi urteak, oro har, ondo joan dira. Giro baikorra dago. Legealdi Planarekin giro ona sortu da. Alderdi guztiek hartu dute parte, eta denek egin dituzte euren ekarpenak.

Hala ere, batzuren ustez, Legealdi Planari konkretzioa falta zaio. Zer diozu?

Ez nago ados. Hasieran alderdi politiko guztiekin egon ginen, eta euren ustez herriak zituen beharrak markatu zituzten. Jaso ziren ekarpen guztiak 22 proiektutan bildu ziren, eta 75 helburu jarri genituen. Txosten hori Udal Plenoan onartu zen. Ondoren, bigarren faseari ekin genion: helburu bakoitza lortzeko zer egin behar den zehaztu genuen. Udal Teknikariekin elkarlanean, Udaleko sailen arteko elkarlana sustatzen hasi ginen, eta hori oso garrantzitsua da. Beti egongo da sail bat ekintza bakoitza gidatzen, baina ekintza bakoitzean zerikusia duten besteen laguntzarekin. Proiektu horiek guztiak 2009-2011 urteen artean burutuko dira. Beraz, Legealdi Planak badauka zehaztasuna, eta herritar guztiei egin nahi diet gonbidapena Udalaren web gunean sartzeko eta plana osorik irakurtzeko. Legealdi Planak jarraipen batzordea dauka, eta hilean behin elkartzen gara. Ezker Batua-Aralar eta Alderdi Popularra izan ezik, gainontzeko alderdiek hartzen dugu parte.

Bete duzue planaren erdia?

Ekintza batzuk egin dira, beste batzuk burutzen ari dira eta beste batzuk burutzeko daude. Ez nuke jakingo zehazten Legealdi Planaren zein portzentaje dagoen abian. Hiru urterako programa da, eta ekintza batzuk luzeagoak dira besteak baino.

Alkate daramazun denboran elgoibartarrak hobeto ezagutzeko aukera edukiko zenuen. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Alkate izateak eta elgoibartarrekin lan egiteak, lehen ere banekiena baieztatu dit: herrian ekintzaile asko dago. Kirol eta kultura alorrean, eta baita gizarte alorrean eragile asko dago. Jendeari laguntza eskatu diodan bakoitzean, erantzuna positi-

boa izan da. Elgoibartarrak ekintzaileak eta partehartzaileak direla esango nuke.

Erreminta-makinaren mundutik zatoz. Balio izan dizu mundu horretan ikasitakoak Udala gidatzeko?

Udaleko lanari norberak jartzen dizkio mugak. Ez da enpresa baten moduan, han neurri handi batean eskaerek markatzen dute lana. Udalean edo alor publikoan lanak burutzeko epeak asko luzatzen dira, bete beharreko arategia dela eta. Mundu pribatutik gatozenoi kostatzen zaigu horretara moldatzea. Azkenean, ohitu egiten zara, eta beste edozein enpresatan bezala, plangintza egoki bat eginez gero, gauzak ondo joaten dira. Bestalde, bezeroak zaindu eta ezagutu behar diren moduan, hemen herritarrak ezagutu eta zaindu behar dira.

**“Ahal dugun neurrian
saiatzen gara
ezker abertzaleari
ateak irekitzen
eta euren ahotsa
kontuan hartzen”**

Elgoibarko bigarren indar politikoa legez kanpo dago oraindik. Mekanismorik baduzue horien ahotsa kontuan hartzeko?

Bai, hala da, baina hori ez da gure errua. Egoera horretan bizi gara, baina legealdi hasieran egin genituen egoera horri irtenbidea emateko hainbat batzar, eta lau batzordetan parte hartzen dute: Kulturaren, Euskaran, Hiri-gintzan eta Ongizatean. Bestalde, Hiri Antolaketa buruzko aholkularitza kontseiluan gonbidatu moduan hartzen dute parte. Ahal dugun neurrian saiatzen gara ezker abertzaleari ateak irekitzen eta euren ahotsa kontuan hartzen.

Krisiak datorren urteko aurrekontuei nola eragingo die?

Udaleko ekonomia eta etxekoa edo enpresa batekoa berdinak dira. Diru-sarrerak eta irteerak kontrolatu behar dira. Udala-

ren diru-sarrera garrantzitsuena Foru Aldunditik etortzen da, eta, aurreratu digutenez, aurten jasoko dugun diruaren zati bat itzuli egin beharko dugu. Oraindik ez dute zenbatekoa zehaztu. Aldi berean, datoren urteko aurrekontuetan diru gutxiago jasoko dugu. 2010-2011 urteak txarrak izango dira. Ondorioz, Udaletik diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarteek ere murrizketak izango dituzte. Bestalde, alor sozialean eskaeren eta beharren kopurua asko handitu da, eta alor horretan diru gehiago jarri beharko dugu. Gastu arruntak optimizatu egingo ditugu, eta inbertsioen atalean ekizazio epeak luzatu egingo dira. Udalak izan ditzakeen diru-laguntza iturriak gehiago lantzen saiatuko da. Neurri batean, Udaleko komertzial lana diru iturri berriak bilatzea eta lortzea da.

Neurri bereziren bat hartuko du Udalak herrian enplegua sustatzeko?

Foru Aldundiarekin eta Inemekin elkarlanean, proiektu batzuk jarri ditugu martxan. Legealdi Planean ere jaso genuen diru kopuru bat langabetuak kontratatzeko, esaterako, atera dugu hamar langile kontratatzeko deialdia. Horrekin lotuta, mahai sektorial bat sortu dugu, besteak beste, ekintzaileak sortzeko. Hau da, ikasketak amaitu eta enpresa berriak sortzeko gazte ekintzaileei laguntzak eman go zaizkie, azken batean, hortik ere lanpostuak sortuko direlako. Bestalde, etorkizunari begira, lanbide heziketa sustatzen ari gara, Elgoibar eta inguruko enpresetarako langileak beharko direlako. Erreminta-makinaren alorrean, jende nagusia jubilatzen denean, erreleboa egiteko jendea prestatzea garrantzitsua da.

Alkate izendatu zintuztenean, merkadilloaren gaia aztertuko zenuela esan zenuen. Nola dago gaia?

Orain dela hilabete batzuk plenoan onartu genuen merkadilloari buruzko ikerketa egitea, eta martxan dago. Ikerketa horretan, ez da merkadilloaren kokapena bakarrik aztertuko: nolako merkadilloa nahi dugun, zein produktu nahi ditugun, zein kalitatekoak, denak gune bakarrean egon behar duen ala herriko hainbat gunetan, zein egunetan... Erantzun beharreko galdera asko daude. Irail alderako izango ditugu emaitzak, eta ondoren hartuko ditugu erabakiak.



Alfredo Etxeberria, Elgoibar sortu zeneko agiri originalarekin.

Zertan da Euskara Biziberritzeko Plana?

2003-2007 legealdian onartu zen Euskara Biziberritzeko Plana, eta orain jarraipena eman diogu. Udalak baditu euskara sustatzeko hainbat proiektu, eta, batez ere, Elgoibarko Izararekin elkarlanean, hainbat lan egingen dira. Hala ere, nahiz eta guk planak martxan jarri, euskara erabiltzea norberarengan dago. Zoritxarrez, nahiz eta euskaraz jakin, askotan gaztelerara jotzen dugu.

BARREN euskara sustatzeko proiektua da, eta herritarren iritzia ezagutzeko lerketa egin du. Zer iruditu zaizkizu emaitzak?

Emaitzak onak izan dira. Beraz, alde horretatik, zorionak eman behar dizkizuet. Baina idatzizko inkestak jasotako erantzunak harritu nau gehien: oso jende gutxi erantzun du. Deialdia egiteko moduaren arabera, alde handia dago herritarren erantzunean. BARRENek hamasei urte ditu, eta, nire ustez, garai hartan jarritako helburuak berritu egin

behar ditu, ezin dira orduko berberak izan. Gestio aldetik, bestalde, hamasei urteren ondoren oso finkatuta egon beharko luke proiektuak herrian: diru sarreretan, notiziak emateko orduan, eta beste alor guztietan.

Kiroldegia handitzeko edo berria egiteko proiektua zertan da?

Bere garaian Elgoibarko kirol instalakuntza eta erabiltzaileen egoera zein zen aztertu genuen: erabilerak, beharrak eta dauzkagun azpiegiturak. Berehala ikusi genuen ur-gunea eta eskubaloi alorra motz geratu zirela. Hortaz, kiroldegia soilik gaur egungo beharretara nola egokitu daiteken aztertu genuen. Orain, Mintxetako gunea eta kiroldegia, biak batera, herritarren beharretara nola moldatu daitekeen azterten ari gara.

Orain dela bi urte, legealdiko proiekturik garrantzitsuena Plaza Txikia izango zela adierazi zenuen. Zertan da gai hori?

Plaza Txikia eta bere inguru guztia azter-

“Etxebizitza gune bakoitzean Babes Ofizialeko zenbat egin behar diren arautuko dugu Hiriantolamendu Planean”

tzen ari gara: Aita Agirre Plaza, tren geltoki ingurua, Merkatu Plaza, Pilar ikastetxea... Erdiguneko plangintza orokorra egin behar dugu. Hortik ikusiko dugu gune bakoitzak zein aukera ematen duen, eta, adibidez, non den egokiagoa aparkalekuak jartzea. Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lanean ari gara. Seguruenik, urte amaierarako datu horiek guztiak izango ditugu, eta gero hartuko ditugu erabakiak.

Badago Babes Ofizialeko Etxe gehiago egiteko proiekturik?

Toletxe aurrean Babes Ofizialeko hamasei etxebizitza egingo dira. Bat bertan bizi ziren herritarrentzako izango da, baina hamabost salgai jarriko dira. Bestalde, Urruzuno inguruan alokairuko edo babes ofizialeko 72 etxebizitza egingo dira. Aurrera begira, etxebizitza gune berri bakoitzean Babes Ofizialeko zenbat etxe egin behar diren arautuko dugu Hiri antolamendurako Plan nagusian.

Udalak badauka hutsik dauden etxebizitzetara irtenbidea emateko proiekturik?

600 etxe inguru daude hutsik, eta Eusko Jaurlaritzako Bizigune planaren barmean saiatzeko gara irtenbidea ematen. Hala ere, plan horretan ezin da edozein etxe sartu, Jaurlaritzak markatzen ditu baldintzak. Une honetan 45 etxe inguru daude Bizigune programarekin alokatuta, eta kopuru nabarmena da Elgoibar bezalako herri batentzat.

Herriko lokalak etxebizitza bihurtzeko baimenik ematen da?

Antolamendurako planean arautuko dugu gai hori. Ordenantza bat egingo dugu, eta horren arabera erabakiko dugu zein lokal bihurtu daitezkeen etxebizitza eta zeintzuk ez.

Pintxorik onenak Paulaner-Txarriduna eta Gabi jatetxeek egin dituzte

Herritarren 2.134 boto zenbatu dituzte antolatzaileek



Epaimahaiko kideak, Amaia Lasagabaster eta Josu Mugerza, pintxoa dastatzen.



Jende asko erakarri du lehiaketak.



Irabazleak, pozik, euren pintxoak erakusten.



Bi pintxo sarituak dastatzen.



Gabi jatetxeak pintxoa prestatzen.

Gurean Bai Pintxo Lehiaketako estreinako edizioiko irabazleak Paulaner-Txarriduna eta Gabi tabernak izan dira. Epaimahaikak emandako pintxo onenaren saria Txarridunako *Tinbala* pintxoak eroan zuen, eta herritarren saria Gabi tabernako *Ikurriña*-k. Sari banaketa eguaztenean egin zuten, eta ondoren, bi pintxo sarituen dastatze publikoa egin zuten arkupeetan, doan. Bestalde, Mari Karmen Alberdi Arriolak irabazi du Belaustegi jate-txean dastatze menua, partehartzaileen artean egindako zozketan.

Lehiaketaren estreinako edizioa arrakastatsua izan da. Izan ere, horrenbestekoa izan denez jendearen erantzuna, antolatzaile eta tabernarien aurreikuspenak gainditu zituen jende uholdeak barixakuan. “Ez genuen horrenbeste jende espero. Aurreikuspenetan huts egin genuen, batez ere barixakuan, eta egoerak gainezka egin ziela onartzen dute tabernariak”, aitortu du Gurean Bai hitzarmeneko teknikariak, Amaia Lasagabasterrek.

Tabernariak zapatuan hobeto prestatzeko aukera eduki zutela ere gaineratu du: “Barixakuan ezina zena gozamen bilakatu zen zapatuan. Horrenbeste jende tabernetan ikusteak eta sortu zen giroak merezi zuen aurrez eginiko behar guztia”. Adierazgarria da pintxorik onena aukeratzeko jasotako boto kopurua: 2.134 boto zenbatu dituzte antolatzaileek. Batez beste, 200 boto jaso dituzte taberna bakoitzean.

Herritarrek lehiari zeuden hamar pintxoei nota jartzeko aukera zeukaten eta notarik baxuena jaso duen pintxoak 6,53ko batez bestekoa lortu du. Nota altuena jaso duenak, ostera, 8,45eko nota jaso du.

Epaimahaikideek ere zorrotz epaitu zituzten hamar pintxoak zapatu eguerdian egin zuten errondan. Epaimahaikoek aukeratutako hiru pintxorik onenak bat datoz herritarrek euren botoen bitartez aukeratutako hirurekin, ordena aldatuta bada ere.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: baren@elgoibarkoizarra.com.

Gozatu orain Morterikaz

Eguneroko bi poloen erresistentzia amaigabearen ikuspuntu alternatiboa planteatu nahiko nuke. Progresoaren aldekoen eta kontrakoen borroka amaigabearen artean dagoena, biak bateratzean, erdiko eremu *turbulentoaren* existentzia.

Bi poloak ezagunak dira, "gorbata eta palestinoa". Bien artean beste planteamendu bat badago: oreka.

Munduaren eta antolatzen duen sistemaren erlojua gero eta azkarrago doa, eta progresu geldiezin eta errealtate ukaezin bat aurkezten zaigu. Begira Elgoibar: obrak direla-eta aurpegia txukuntzen, industria poligonoetara kanporatzen eta farolak florero bihurtuta. Gure herri industria askoren diru-iturri da. Progresoa bidaialagun daukagu. Progresoaren erlojuaren erritmoa era zentzudun eta orekatuan planteatu daiteke, maxibitatean jauzi gabe, eta horrek erresistentzia gorapagarria sortzen du. Iraultzailea den lema bat sor dezakegu: progresu zentzudun eta integraztailea.

Errealtatea polo suntsizailerak gerturatu da. Herritarron industria izatetik, gutxi batzuk ateratzeko maxibitate eta zentzugabekeriara pasa gara. Poligonoak gero eta handiagoak, inguruko mendiak gero eta apurtuagoak, eta batzuen poltsikoak gero eta beroagoak. Hori ez da neurritzakoa, hori gehiegizkoa da. Industriagune larregi daude Elgoibar bezalako herri bantentzat, Sigma, Olaso, Albitxuri, Ibaitea eta, orain, Morterika. Seguru nago Morterikako industriagunea eraikitzen denean

jendea bertara paseatzera joango dela. Nik, ordea, zelai eta basora doan bidea hartzerantz animatzen zaituztet. Askok ume-tako oroitzapen ederrak ditugu bertan, eta oso atsegina da. Beraz... gozatu orain Morterikaz, grisa izan baino lehen.

AR ☺

Alkate jaun agurgarriari

Ekainaren 29an nire seme Ikerrekin joan nintzen estreinakoz Mintxetako igerilekuetara, eta azpiegitura gustatu zitzaidala aitortu behar dut.

Irtetean, semea, urte bi t'erdikoa, harmailetako lehen ilarara gerturatu zen, eta bakarrik hiru liztorrek ziztatu zuten, zorionez -lehen ilarako aukila batean hamar baino gehiago zeuden-. Handik laster ateratzeko erreakzioa izan nuen, baina ni ere ziztatu ninduten. Herritar asko irteten ari ziren orduan, eta emakume batek lagundu ninduen liztorrek uxatzen. Une horretan ziztada bakoitzaren gunea gorritu eta handitu egin zen. *Etxo* batek umea ziztatu zuen lehen aldia zen. Berehala eraman nuen Mendaroko larraldietara, eta okerre-na behintzat konpondu zen. Kiroldegiko arduradun bat bera ere ez zen bertaratu, edo ez zuen laguntzeko ahaleginik egin.

Erreklamazioa egiteko itzuli nintzenean, igerilekuetako sarbidea kontrolatzen zuen arduradunak adierazi zidan liztorrek ume gehiago ziztatu zituztela, eta berak datuok jaso zituela txostenean.

Hori konpontzeko neurriak har daitezkeen erregutzen dizut. Izan ere, semea alergikoa balitz, han bertan hilko zatekeen.

Familiarekin batera bizi naizen herriko Udalaren ardurapeko lokal publiko jendetsu batean pasatu dugun arriskua dela eta, premiazko erabakiak exijitzen ditut.

Zeure berrien zain gelditzen naiz.

Ana Carolina Lodeiro Caldeira ☺

25. Nahaste Borraste

Nahaste Borrasteren 25. edizioa pasa berri da, eta Kimetz elkartekook aurtengoan zein aurreko urteetan hori posible egiten lagundu diguzuen guztiei eskerrak ematea nahi genizueke. Aurtengoan 51 izan dira parte hartzaileak, eta proba giro ezin hobean burutu dugu. Hala ere, emakumerik ez animatzeak arduratzen gaitu, eta datorren urtera begira, zer indartu behar dugun argi geratu zaigu. Gure eskerrik beroenak parte hartzaileei, eta baita proban, zein aurrez, lanean aritutako guztiei.

Bukatzeke, eskerrak probaren gastuei aurre egiten lagundu diguzuenoi: Udal Kirol Patronatua, Pitxintxu, Kala loradenda, Astigarraga kirolak, Lanbroa taberna, Iriondo kirolak, Iraegi errotuluak, Julio Bueno ardoak, Bire elektratresnak, Osoro zapatak, Goki erreformak, Usatorre taberna, Bollar fruta-denda, Txiriboga taberna, Mekanosa, Ziarda harategia, Kastrillejo estankoa, Ibai Ondo erretegia, Ize liburu-denda, Sahatsu harategia, Ipintza pinturak, Garate jantzi-denda, Patxi harategia, Jon modak, Jai Alai taberna, Amueta harategia, Iturri taberna, Iriondo taberna, Urzelai argiak, Katei edariak, Alzolako urak eta Orbea taberna.

Kimetz elkartea ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:






Noemi
Otegi

Hain justu egun hauetan, hainbat dira ikasleak selektibitatea egin dutenak eta unibertsitateko ikasketak aukeratzen ari direnak. Ziur nago zuk zure momentuan oso argi zenuela zer ikasi nahi zenuen, edo nondik joan nahi zenuen, behintzat. Ingeniaritza ikasi zenuen, ezta? Niri, berriz, asko kostatu zitzaidan aukeratzea, karrera asko gustatzen zitzaizkidan, eta, era berean, ez nekien zein zen betirako nire lanbidea izatea nahi nuena. 18 urte dituzenean, betiko lanbidea zein izango duzun aukeratzea ez da inola ere lan erraza. Horregatik erabaki nuen nik gustuko nituen ikasgaiak ikastea, eta ondoren denborak eta egoerak jarriko nindutela lanean, zegokidan lekuan. Jada ez daude betirako ogibide edo lanpostuak, gehientsuenok lan edo eta enpresa dexente ezagutuko ditugu gure bizitzan zehar. Nire aita, esaterako, oso gazte hasi zen CAFen ikasten eta lanean, baita bertan jubilatuta ere. Ez dakit inoiz planteatu ere ahal izan zuen gustuko zuen bere lana ala ez, hori zen zegoena. Agian, gaur aukera gehiegi ditugu, eta kosta egiten zaigu gure bidea topatzea.

“Asko kostatu zitzaidan betiko lanbidea aukeratzea”

Hau pagotxa gurea, ezta? Gure ikasketak, ogibidea edo aisialdirako afizioak aukeratzeko beta izatearena! Nork esango lieke geure arbasoei, egungo gazteen arazoetako bat ikasbidea aukeratzea izango zela. Benetan hain argi izan al zenuen zeuk zure bidea?




Ainara
Sedano

Ba nik, Noe, egia esan behar badizut, deskartez aukeratu nituen nere ikasketak. Gustuko ez nituenak listatik kendu eta ez zitzaidan aukera handirik geratu. Nik behintzat 18 urterekin ez neukan idea zorrikeri ere bizitzan zer egin nahi nuen; zein arlotan pasa nahi nuen bizi osoan (35-40 urte) aritzen. Ez da txantxetan ibiltzeko kontua!! Eta izan gaitetzen argiak, orientatzaileak, niri behintzat, ez zidan laguntza txirik ere eskaini (barka diezadala hau irakurtzen badu). Orain, ordea, urteak aurrera joan ahala, gustura ikasiko nituzkeen hainbat gauza datozkit burura, gehiegi pentsatu gabe.

Ikasketak amaitu eta izan dut leku bat edo bestean lana probatzeko aukerarik, eta denetik ikasi ere. Baina, batez ere, ikasi dut lana oso gustuko izan arren, eta nirea oso gustukoa dut, gozoena eta garrantzitsua lana amaitzean datorrela.

“Ez dut trena pasatzen uzteko asmorik”

Ikasketak egin bitartean, eta gaztetako txoriak buruan nituela, urrun heltzeko pentsamenduak ere pasa izan zaizkit burutik. Ez dizut ezetz esango, eta baita emakume moduan norabait heltzeko grina hori... Eta auskalo hemendik urte batzuetara zertan eta non arituko naizen, baina nire amaren kontseiluari jarraitzea espero dut, eta lana sekula ere ez uztea; ezeratik ere ez. Gaur egun, tristeza bada ere, ekonomikoki independente izatea askatasunaren sinonimo delako, eta orain emakumeok aukera dugula, ez dut trena pasatzen uzteko asmorik.



Paulaner-Txarriduna eta Gabi jatetxea izan dira Gurean Bai Pintxo Lehiaketako irabazleak.

Probatu dituzu lehiaketako pintxoak?



Amagoia Fernandez
32 urte, arkitektoa

Barixakuan bi pintxo bakarrik probatzeko aukera izan genuen, gastatu egin zirelako. Zapatu goizean beste hiru jan genituen. Giro oso polita zegoen. Irabazleak onak daude, baina niri Lanbroakoa gehiago gustatu zitzaidan. Datorren urtean berriz antolatzeke modukoa da.



Jose Felix Larruskain
47 urte, irakaslea

Asteburuan ez nintzen kalean ibili, eta gaur kasualitatez probatu dut pintxo irabazleetako bat. Gabikoa jan dut, eta oso ona iruditu zait. Ezin dut esan, ordea, onena izan den ala ez, besteak ez ditut jan eta. Pintxo lehiaketa antolatzea oso polita iruditu zait.



Pablo Lozano
48 urte, enpresaria

Asteburuan lanean izan nintzen, eta gaur [eguztzena] etorri naiz irabazleak probatzera. Hala ere, ez zaizkit oso onak iruditu, horiek baino hobeak jandakoa naiz. Elgoibar ez da pintxo-herria. Dena dela, tabernak betetzeko eta giroa sortzeko ekintza polita izan da.



Jon Guillo
11 urte, ikaslea

Bai, bi pintxo irabazleak probatu ditut, eta oso onak iruditu zaizkit. Orain arte ohiko pintxoak bakarrik jan izan ditut. Patata tortila jaten dut normalean, eta horrelako pintxo arraroak jaten nuen lehenengo aldian izan da. Gabikoa gustatu zait gehiago.

GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara,
zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



Madalako bidegurutzean zebra-bide bat falta da:

“San Franzisko kaletik Pedro Muguruza etorbidera joaterakoan, zebra-bide bat falta da. Harrizko bidetik zoazela, Madalako bidegurutzean ezkerreko aldera edo eskumako aldera joan behar da, hau da, San Lazaro parera edo Txarriduna ingurura. Ez dut ulertzen zergatik egin duten hori horrela. Nire ustez errazagoa zen bideari segidan jartzea zebra-bidea”. ⇒



Osasun Zentrotik goranzko bidean autoak gaizki aparkatuta egoten dira askotan: “Bernardo Ezenarro kalean auto asko bide bazterrean aparkatuta egoten dira, eta oso arriskutsua dela iruditzen zait. Gure Bide elkartearen inguruan batez ere, askotan egoten dira autoak. Aldapan gora joaterakoan, ez da ikusten goiko aldetik norbait datorren ala ez, eta itsu-itsuan egin behar izaten da erre aldaketa. Orain, gainera, obretan daude, eta are eta arriskutsuagoa iruditzen zait. Udaltzainei ingurune hori apur bat gehiago kontrolatzea eskatuko nieke”. ↑

Madalako iturrian ez dago urrik: “Madalako eliza aurreko iturria urrik gabe dago denboraldian. Ingurune horretako obrak egiteko moztu zuten, baina dagoeneko amaitu dituzte lanak, baina iturriak urrik gabe jarraitzen du. Iturria bera garbitu egin dute, eta harria oso ondo laga dute, dotore. Eskertuko genuke ura jartzea”. ↓



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



I. URTEURRENA

MIGUEL MENDIKUTE IRIONDO

2008ko uztailaren 7an hil zen, 97 urte zituela.
 Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, uztailak 5,
 eguerdiko 11:00etan Mendaroko Azpilgoeta elizan.
 Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



Urtebete barru hasi nahi dituzte Lerun Txiki-Morteriako industriaguneko obrak

Esparruan kokatzeko interesa duten enpresek izena eman dezakete, dagoeneko

Lerun Txiki-Morteriako inguruan industriagune berria eraikiko dute, eta lanak urtebete barru hasiko dituzte. Alfredo Etxeberria alkateak BARRENI azaldukoaren arabera, promotorearekin ari dira partzelen banaketan. Industriagune horretan kokatzeko interesa daukaten enpresek, zabalik daukate izena emateko epea. Industriaguneak 10.500 metro koadro inguru izango ditu, eta bost gunetan banatuta egongo da. Udalak, dagoeneko, onartu du Lerun Txiki-ko Plan Partziala, eta uztailearen 8ra arteko epea dago alegazioak egiteko.

Obrak hasten direnean, berdegune horretan dagoen Lerun Txiki baserria bota egingo dute.



Karakateko trikuharrien artean gaua pasatzeko plana egin dute



Arno, Izarraitz eta Muskurutxu ingurua bizirik nahi duten taldeek antolatuta, akanpaldia aingongo dute Karakaten uztailearen 10ean. 19:00etan hasiko dira ekitaldiak, eta, besteak beste, natura bisita gidatua egingo dute Iruiyako trikuharriaren inguruan. Ondoren, motxaille kontuak konstatuko dituzte, suaren inguruan eta musikitarra vietnami-taz girotuta. Antolatzaileek herritar guztiak animatu nahi dituzte, akanpadan parte hartzera. Ahal dela, oinez igo-tzeko deia egin dute, eta, badaezpada, kanping dendak eramateko gomendioa egin dute.

Altzolara eta Sallobentera bide gorriak egingo dituzte

Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak bi bide gorri egiteko proiektuak dituzte eskuartean: Aldundiak Lerun inguruetik Altzolarako bide gorria egingo du. Oraindik epeak zehazteko daudela aurreratu du Alfredo Etxeberriak, baina proiektua onartuta dago. Udalak, bestalde, Sallobenterako bide gorriaren ikerketa lana egiteko asmoa dauka. Batetik, bide gorria nondik egingo duten zehaztu behar dute, eta alor ekonomikoa ere ondo aztertu nahi dutela adierazi du alkateak. Andikano eta Maltzaga arteko bide gorria bestalde, abuzturako egongo da prest. 3,5 metroko zabalera eta 2,6 kilometroko luzera izango du. Guztira, 1.257.000 euroko aurrekontua izan du.



Izena **Ovidio Campello**



Ovidio Campello PSE-EEko zinegotzia Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide izendatu dute. Lau batzordetan parte hartuko du elgoibartarrak: Kultura eta Euskara, Garapen Iraunkorra, Berrikuntza eta Herritarrekiko Harremana. Une honetan bera da Batzar Nagusietan dagoen elgoibartar bakarra. Zinegotzi sozialistak azaldutakoaren arabera, oso pozik dago, eta bere ibilbide politikoa eman duen beste pauso bat da. Herriko lanekin bateratuko ditu batzarkide ardurak.

Berbia **Herri-partaidetza**

Udalak eta Foru Aldundiak herri-partaidetza sustatzeko lankidetzak hitzarmena sinatu dute. Horren arabera, datozen hamabi hilabeteetan inkestak eta azterketak egingo dituzte, herritarrek udal ekimen eta proiektuei buruz duten iritzia berri jakiteko. Elgoibarren bi proiektu jarriko dira martxan: batetik, gazteek aisialdian erabiltzen dituzten lokalei buruzko udal ordenantza arautuko dute, eta bestalde, Herritarrek Hirri Antolamendurako Plan Nagusiaren aurrerapenari buruz duten ezagutza maila zehaztuko da.

Irudia **Mintxetako igerilekua**

Mintxetako igerilekuetako taberna zabaldu zuten eguaztenean. Benantzi Otaegi parrokoak eman zion bedeinkazioa tabernari, eta, Udaleko ordezkariekin batera, herritar mordoak gerturatu zen inaugurazio egunean. Bero handia egin zuen, eta tabernako arduradunek freskagarriak banatu zituzten doan.



Burdingintza paisaiak, IMHko museoan

Erreminta-makinaren museoan *Burdingintza paisaiak* izeneko erakusketa inauguratuko dute uztailaren 8an, eguaztenean, 19:00etan. Fernando Callejaren eskulturak eta pintura lanak egongo jarriko dituzte ikusgai, urriaren 4ra arte. Interesatuak asistentzia konfirmatu beharko dute, 943 744 132 telefonora deituta. IMHko arduradunek gogorarazi nahi dute, bestalde, museoa asteburuetan ere irekita egoten dela 11:00etatik 14:00etara, eta abuztuan ere zabalik egongo dela, martitzenetik domekara, 11:00etatik 14:00etara. Astelehenetan, ordea, itxita egongo da.

Osasun Zentroko arreta zerbitzua hamabi orduz

Osasun Zentroko administrazio zerbitzua 8:00etatik 20:00etara bitartean izango da, Osakidetza jakinarazitakoaren arabera. Telefono bidezko arreta zerbitzuak ere ordutegi berbera izango du, baina larrialdiko deia ez bada, eguerdiko 13:00etatik aurrera deitzeko gomendioa egin dute. Bestalde, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan Internet bidez txandak hartzeko aukera ere badago, www.osakidetza.net web gunean.

Diru-laguntzak Gaztedia alorrean ari direnentzat

Udaleko Gazteria Sailak gazteen alorreko ekintzetarako dirulaguntzak emango ditu. Elgoibar-ko Udalerriko haur, nerabe eta gazteen intereseko jarduerak egingo dituzten gazteria arloko eta irabazi asmorik gabeko talde eta elkarteentzako dirulaguntzak izango dira. Informazio gehiago www.elgoibar.org. Eskabideak eta dokumentazio osagarria Elgoibar-ko Udaleko Hiritarrentzako arretarako bulegoan aurkeztu beharko dira.

aizpea goenaga

Aizpea Goenaga antzezlea, zuzendaria eta gidoilaria da. Telebistan zein ohol-tza gainean aritu da, eta azken aldian baita kamera atzean ere. Zinemarako egin duen lehen lana, *Sukalde kontuak*, orain gutxi estreinatu dute, eta harrera ona eduki du. Euskaraz egiten diren filmak ez dira asko, eta ia gehienetan umorea landu izan dute zinemagile euskaldunek: Goenagaren azken lana ere ildo horretatik doa. “Egiten duzunak erakargarria izan behar du ikuslearentzat, eta umoreak dramak baino jende gehiago erakartzen du”, aitortu du.

Edurne Burgaña

“Gogo handiagoa behar da euskal zinema gehiago egiteko”

Orain gutxi estreinatu duzu *Sukalde kontuak* zinemarako zure lehen lana. Zer harrera eduki du?

Oso ona, zinemaren panorama beltza kontuan hartuta, oso pozik gaude jendearen erantzunarekin, eta batez ere joan direnengandik jaso dugun harrerarekin. Egia esan, ikusleek oso mezu politak bidali dizkidate.

Lehen filma izanda, zer kostatu zaizu gehien?

Ba... kosta, kosta... dena, eta bat ere ez! Egia esan, ez da erraza halako tamainako proiektu bat martxan jarri, bideratu, errodatu, eta estrenatzea. *Puf!* Ez da erraza, ez. Baina esaten den bezala, *gustuko tokin aldapik ez!* Kasu honetan gustuko tokian ginen, eta ezagun da.

Euskaraz ez da film askorik egiten, baina ez da gogo faltagatik izango...

Gogo falta baino, diru falta da. Hala ere, gogo handiagoa behar genuke euskal zinema gehiago egitearen alde egiteko.

Azken urteotan gainera, umorea landu dute euskarazko filmek. Zure azken lana ere komedia da. Zergatik?

Komediarekin ehun eramatzen badituzu zinera, drama batekin hamar baino ez lirateke joango. Eta zinema industria denez, ahalik eta jende gehien hurbiltzea da helburua. Egiten den gutxi horrek erakargarria izan behar du ikusleentzat

Zer kontaktzen du filmak?

Endreduzko komedia bat da. Sukalde eskola bateko ikasleek altxor bat topatuko dute. Irakasleari arazoak pilatzen jo-



ango zaizkio. Baina eskolako ikasle horiek ez dira altxorarekin geratu nahi duten bakarrak... Eta horraino kontu dezaiket.

Bestalde, antzezlan bat egiten ere bazabiltza: Arrainontzia. Udazkenean estreinatuko duzue, baina Urnietan emanaldi bat egin duzue. Zer harrera eduki du?

Ona, oso ona. Antzezlan oso gogorra da, gaia ere hala delako. Jendearen harrera ezin hobea izan zen. Sekulako isiltasuna sortu zen antzezlan osoan zehar.

Emakumeen kontrako indarkeriaren metafora da arrainontzia. Ez da gaia lantzen duzun lehen aldia.

Kalean uso etxean otso, espektakulua ere egin genuen, joan den urtean Emma Larretarekin batera, berak genero indarkeria jasan zuen, eta orduan ere ahalegina jendearen barruak astindu eta gizartearen gaitz honen aurka zer edo zer egitea zen. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta arrain-ontzia bukatzeko ere lagungarri gertatu zitzaidan.

Filmak egitea ala oholta gainera igotzea, zein da zailagoa?

Bi lanek errespetu handia pizten didate. Zein den zailagoa? Film batek diru gehiago mugitzen du, eta horrek esan nahi du

jende gehiago ere mugitzen duela. Baina antzezlanaren eguneroko saioan ezin duzu kale egin.

Aktore izateak filmak zuzentzeko garaian lagunduko du, ezta?

Filma zuzentzen ari naizenean zer nahi dudan dut buruan, ez aktore naizen ala ez. Hala ere, akaso gauza batean lagundu dezake, aktoreekiko exijentzian. Aktoeren lanean asko sinesten dut. Niretzat ez dira papinak, niretzat elektrizitatea bideratzeko bonbilak dira, eta horretarako denak egon behar du prest eta bideratuta: instalazioak, kableak, konexioak... Baina beraiek erakusten dute argia.

Oraintxe hasi zara zinemagile, baina jarraitzeko asmorik bai?

Bai, leku batetik edo bestetik jarraituko dut, asko gustatzen zait eta.

Elgoibarren askotan ikusi izan zaitugu oholta gainean. Zer moduko ikusleak dira elgoibartarrak?

Oholta gainean baino, egun asko pasa ditut Elgoibarren, entseguetan, bi espektakulu bertan zuzendu baititu, eta elgoibartarrak asko gustatzen zaizkit, oso ondo erantzuten dute eta. Bai zinea eta baita antzerkia ikusten ohituta dauden ikusleak dira.

Motz-motz

• **Gustuko duzun antzezle bat?**

Nire filmean agertzen diren guztiak, eta hortik kanpo beste mordo bat.

• **Pertsonaia historiko bat?**

Santxa Ramirez.

• **Bizitzeko leku bat?**

New York.

• **Ezagutu nahiko zenukeen garaia?**

Denetan bizitzea gustatuko litzaidake, baina leku on batean jaiotzeko.

• **Gustuko duzun jateko bat?**

Arroza.

• **Eta edari bat?**

Ura.

• **Zer abesti entzungo zenuke eguneko 24 orduetan?**

Isiltasuna.

• **Pelikula bat?**

Sukalde kontuak, eta ikusi ditudan azkenekoen artean, *Revolucionary road*.

• **Antzezlan bat?**

Arrain-ontzia antzezlan.

“Filma zuzentzen ari naizenean zer nahi dudan dut buruan, ez aktore naizen ala ez”



DENDA TXIKIEN KRISIA



Krisiaren eta kontsumo ohitura berrien eraginez, Elgoibarko hainbat komertzio txikik zailtasun ugari daukate aurrera egiteko. San Bartolome kalean, zortzi bat negozio itxi dituztela zenbatu du BARRE-Nek. Txankakua elkarteko denden %16 itxi dituzte azken hilabetee-tan. Martxa horretan segituz gero, Elgoibar lo-hiri bihurtzeko arriskua dagoela uste du merkatari elkarte-ak. Egoerari aurrea hartzeko, Udalak *Gure denda, gure poza* kanpain- jarri du martxan, eta kontsultora bati merkadilloaren kokapena ikertzeko eskatu dio.

Oier Narbaiza

Orain dela gutxi denda itxi duen elgoibartar baten esanetan, “Elgoibarko komertzioaren egoera oso gaizki dago. Gainera, Udalak ez du laguntzarik ematen. Lokaletako ugazabek ere ez dute ezertan laguntzen. Desastre bat da. Gero etortzen dira enpresa handiak eta jan egiten gaituzte. Ezin da konpetitu”.

Haserre dago. Izan ere, martxoan eraberritu zuen lokala, baina maiatzerako itxi behar izan zuen. “Beti pentsatzen duzu ahal duzula. Baina krisiarekin-eta gauza onik ez zetorren”, adierazi du. Kontsumo ohitura berriek eta saltoki handiek denda txikiengan eragin zuzena dute, bere iritziz. “Handiek prezio merkeagoak dituzte. Nik ez dakit krisiagatik izango den ala ez, baina igartzen da jendeak orain beste ohitura batzuk dituela”.

Ez da bakarra. Hainbat arrazoi tarteko, erdialdean denda asko itxi dituzte azken hila-beteetan. Urte hasieratik zortzi komertzio gu-

txiago daude San Bartolome kalean. Denda berriak, berriz, oso-oso gutxi dira.

“Egunero 1.000 euro ateratzeari laga, eta 100 edo 200 baino ez nituen lortzen gero”

Mari Carmen Corralero

Orain dela aste batzuk San Bartolome ka-leko bazarra itxi zuten. Mari Carmen Corrale- rok hiru urte eman ditu negozio horretan. Ha- siera zaila izan zela gogoratzen du, eta gau- zak ondo joatea lortu zuela.

Gainbehera gero etorri zen. “Krisia etorri zen, eta jendea behar baino gehiago ikaratu

zutela uste dut”, dio Mari Carmenek. “Egu- nero 1.000 bat euro ateratzeari laga nion, eta gehien jota 100 edo 200 ateratzen ni- tuen gero. Hasieran ondo bizi nintzen. As- tean hiru hornitzaile etortzen zitzaizkidan, eta bakoitzaren gutxieneko eskaria 700 eu- rokoa zen. Argia ordaindu behar nuen, 1.200 euroko alokairua, ogasuna, auton- omoak...”. Konpetentzia egin zion beste ne- gozio bat zabaltzeak ere kalte egin ziola us- te du.

Merkataritzaren egoera zaila da Elgoiba- rren, Mari Carmenen iritziz. “Abentura han- dia da negozioa une honetan martxan jar- tzea, baina ez du zertan gaizki joan”.

Administrazioak gehiago lagundu behar- ko lukeela uste du. “Laguntzarik ez dago. Asistentarekin hitz egin nuen, zorrak ditu- dalako, eta oso gaizki nagoelako. Esan zi- dan etxebizitzako hipoteka ordaindu ezinik ibiliz gero, laguntzak badirela, baina beste- la ez. Eta negozioak ematen digu jaten”.

“Gustatuko litzaidake ni bezalako jende gazteari laguntza emango baliote. Nire bizitzako ilusioa zen, eta seme-alabentzako etorkizuna ziurtatzeko asmoz jarri nuen denda. Ezin izan dut aurrera atera. Pentsa zelan sentitzen naizen! Min handia hartu dut, baina etorriko dira sasoi hobekak”, bere esanetan.

Egoera zaila

“Egoera zaila da”, dio Udaleko Merkataritza Saileko Oihana Barrutiak. “Krisiak eta faktore makroek eragina dute Elgoibarren eta leku guztietan”, azaldu du.

Orain urte batzuk, Europako hainbat herrialdetan merkatalgune handiak sustatu zituzten, baina orain saltoki txikien garrantziaz konturatu dira. “Frantzia-eta horri buelta eman nahian dabilta, eta herriko giroa suspertu nahi dute”, dio Barrutiak. Denda txikiak suspertzeko estrategia bat da herri erdigunean ekintzak antolatzea. Azken batean, herrian mugimendua badago, kon-

tsumoa erdigunean egingo da. “Aurreko asteko Nahaste Borrastek edo pintxo lehiaketaren moduko ekimenek lagundu egiten dute”, azaldu du.

Merkadilloaren kokapena ikertzeko enkargua egin dio Udalak enpresa bati

Merkataritza teknikariaren arabera, denda barruko lana ondo egin behar dute dendariak, alde batetik; dendatik kanpo, elkarte eta erakundeei dagokie herriari bizitasuna ematea eta herritarrak kontzientziatzea, bestetik. Merkatu Plazan sortu berri den Barren Azoka elkarteak ere herria girotzeko ekimenei ekin die, urdaiazpikoarena esaterako.

Udalak *Gure denda, gure poza* kanpainari ekin dio, denda txikiei, ostalaritzari eta beste zerbitzu batzuei laguntzeko. Kanpainak jendea kontzientziatu nahi du herrian erosteko, zerbitzu sektorea garrantzitsua delako Elgoibarren.

Hainbat sektoretako ehun bat establezimenduk bat egin dute ekimenarekin, eta kanpainaren logoa jarri dute atean. Denda horietan, poltsa berrerabilgarriak banatuko dituzte, eta opariak zozkatuko dituzte bezeroen artean. Erosketa bonoak ere eman go dituzte.

Batzuren iritziak, merkadilloa lekuz aldatzeak dendak kaltetu ditu. Udalak kontsultora bati enkargatu dio kokapenaren inguruko ikerketa egin dezan, datorren astetik aurrera. Elkarrizketak egingo dituzte herritarren artean, eta alternatiba posibleak planteatuko dituzte.

Ekimen guztiek eta herritarren kontzientziazioak gelditu beharko dute denda txikien krisia, Elgoibar lo-hiri ez bihurtzeko.



Nerea Erkiaga Txankakua elkartekoa

“Gure bazkideen %16k itxi egin dute edo likidatzen ari dira”

Zein da denda txikien egoera Elgoibarren?

Komertzio txikiak itxen ari dira. Azken hilabeteotan Txankakua bazkideen %16k itxi dute edo likidatzen ari dira.

Krisiak zein eratako komertzioei eragin die batez ere?

Nik uste dut behar-beharrezko produktuak edo zerbitzuak eskaintzen ez dituzten guztiei.

Zer egin beharko genuke komertzioaren egoera hobetzeko?

Merkatariok ahalegina egingo dugu aukera zabala eskaintzeko. Kalitate-prezio erlazioko prezioak eskaini behar ditugu, baita gertutasuna, profesionaltasuna, eta, batez ere, herritarrak kontzientziatu behar ditugu.

Ekimen berezirik prestatu du Txankakua?

Herritarrak animatzeko ekimenak jarriko ditugu martxan, esaterako, iraileko azoka. Gabonetan, zozketak eta umeentzako iharduerak egingo ditugu. Horrez gain, Txankakua txartelaren bidez, fideltasuna bilatzen dugu: puntuak pilatu eta opariak eskuratu daitezke gero, %5eko beherapenak egon daitezke eta berehalako opariak lortu daitezke. Hil guztietako lehen egunean promozio berezia egiten dugu.

Udalak eta, oro har, administrazioak zer bait egiten dute dendariak laguntzeko?

Bai. Jaurkitzak laguntzak ematen dizkie elkartei, herritarrentzako

animazio ekimenak martxan jartzeko. Elgoibarko Udalak, berriz, *Gure denda, gure poza* kanpaina jarri du martxan, herritarrak animatzeko ekitaldiekin uztartu ahal izateko. Erakundeak merkataritzaren garrantziaz jabetu dira. Merkataritzak bizitza ematen dio herri bati. Dendon artean borroka egin behar dugu herri txikiak ez daitezen lo-hiri bihurtu.

Merkadilloaren gaiak eraginik izan du?

Bai. Elkarteak aspaldi esan zuen ez zegoela ados merkadilloa lekuz aldatzearekin. Jendea erakarri eta mugimendua sortzen duen guztia ona da, eta zentroan egon beharko luke. Eguenetan mugimendua egoten zen Elgoibarren, baina orain beste edozein egun bezalakoa da. Gainera, elgoibartar batzuk Eibarko merkadillora joaten hasi dira.

Zer eskatuko zenieke kontsumitzaileei?

Duguna eta izan dezeko balaratu dezatela: 10.000 laguneko herri batean, kalera irten eta minutu gutxitan eskura izan dezagula edozein arlo –arropa, oinetakoak, burdindegia, harategiak, frutadendak, lurrindendak, edergintza zentroak, altzaridendak, etxeko tresna elektrikoak, kirolak, optikak eta beste batzuk–. Nagusiek, etxetik irtetean, hori guztia eskura izatea baloratzeko modukoa da. Kalean erakuslehoak izatea baloratzeko da.

Giro paregabeen ospatu dituzte San Pedro Jaiak

Domekako beroari aurre eginez, antxintxinka igo ziren 25 lagun auzora

Joan dira Idotorbe-San Pedro auzoko jaiak ere, eta bai giro onean joan ere. Eguraldia lagun, barixakutik astelehenera birtartean denetarik eduki dute auzoan: txapliguak, auzotarren afaria, motokrosa, bolo txapelketa, meza, korrika igoera eta idi dema, besteak beste. Ez aspertzeko moduko egitaraua eduki dute.

Domekan, eguzkiaren izpiei aurre egin eta lehenengo bider antolatutako lasterketan hartu zuten parte 25 lagunek. Santa Klara kalean hasi eta zelairaino igo ziren antxintxika, tartean, hiru neska. Cesar Sanz aguraindara iritsi zen lehen postuan (16:55), Mikel Alberiz donostiarra izan zen bigarrena (16:58), eta Unai Bengoa itziartarra hirugarrena (17:14). Lehen elgoibartarra David Conde izan zen, laugarren postuan sailkatu zen. Helmugaratutako lehen emakumea, berriz, Ainhua Lendinez elgoibartarra izan zen (21:44). Sailkapen osoa www.elgoiBAREN.net helbidean.



Elgoibari buruzko kronika zahar gehiago jarri dituzte Interneten

Elgoibarko Udalak herriko ondarea batzeari ekin zion iaz Dijitalidadea enpresarekin. Gerra aurreko ondarea bildu, digitalizatu eta Interneten jarri zuen enpresak. Horretarako, 1930 eta 1936 urteen bitartean *Euzkadi* eta *El Dia* egunkarietan euskaraz argitaratu zituzten kronikak eta albisteak erabili zituzten.

Aurten, berriz, lan horri jarraipena emateko, 1933tik 1936ra bitartean *Argia* aldizkarian argitaratutako albisteak ere digitalizatu dituzte.

Hiru aldizkarietan 1930 urtetik 1936ra artean publikatutako 2.287 albiste daude sarean. Bilaketa errazteko asmotan,

gaiaren arabera banatu dituzte albisteok: gizartea, politika, erlijioa, kultura, kirola, kazetarien artekoa, eta denetakoak.

Bi atari aukeran

Beraz, Elgoibarren inguruan digitalizatu eta sarean jarri duten informazioa edozein herritarrek eskuratu dezake. Horretarako, bi atari daude aukeran: www.elgoibar.org helbidean euskara sailaren atalean *Elgoibarko kronika zaharrak* izenarekin, eta www.dijitalidadea.com. Sartu eta begiratzea besterik ez dago.

Udalak Gotzon Garate beka aurkeztu du Elgoibarko toponimia aztertzeko

Beka 20.000 eurokoa da, eta lana egiteko hamalau hilabete egongo dira

Elgoibarko Udalak Gotzon Garate beka sortu du, euskara arloko ikerketa sustatzeko, eta aldi berean, idazle eta euskalari elgoibartarra omentzeko asmotan. Bekaren ikerketa esparruak euskararen ezagutza, erabilera eta elikadura izango dira. Hau da, hizkuntza aberastea, Udalak bi edo hiru urtetik behin egingo du, Gotzon Garate bekari dagokion diru-laguntza deialdia. Aurten go ikerketa lana Elgoibarko toponimia izango da.

Bekaren helburua izango da Elgoibarko toponimia biltzeko, sailkatzeko, kokatzeko, aztertzeko eta finkatzeko proposamena egitea. Bekaren zenbatekoa 20.000 eurokoa da. Horrez gain, azterlana egiteko, hamalau hilabeteko epea izango da, beka emango duten egunetik hasita.

Banaka edo taldeka

Azterlana euskaraz egin beharko da, eta horren laburpena ele bietan. Lana Udaleko Euskara Batzordearen ardura-



pean eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean burutuko da.

Eskatzaileak norbanakoak edo taldeak izan daitezke. Eskatzaileak –edo taldea baldin bada, taldea osatzen duten kideetako batek gutxienez– Euskal Filologia edo Historia ikasketak burututa izan beharko ditu, edo ikasketen azken ikasturtean egon beharko du; edo bestela, euskal hiz-

kuntzalaritzari buruzko ezagupena eta trebakuntza egiaztatu beharko ditu.

Eskabideak eta dokumentazio osagarria Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean (Nafarroa plaza 3, 1. ezk, 20870 Elgoibar) aurkeztu beharko dira, 2009ko irailaren 1etik 30era. Gai honi buruzko informazio gehiago nahi dutenei, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailera jo dezakete.

Ikastolako Batxilergoko ikasleek kurtso amaiera ekitaldia egin dute



Ikastolako Batxilergoko ikasleek kurtso amaierako diplomak jaso dituzte. Ikastolako zuzendariak ikasle horien emaitzak gorai patu zituen ekitaldian, izan ere, unibertsitateko hautaprobea ikasle en %100ek gainditu dute. Irakasleen kementa ere nabarmendu zuen, Ikastolako Batxilergoak izan duen egoerari erantzuten jakin dutelako.

San Fermin Txiki eguna ospatuko dute hilaren 8an

San Fermin txiki eguna izango da uztailaren 8an, Atxutxiamaikak Udaleko Gazteria sailaren laguntzaz antolatuta. Aurreko urteetan izandako arazoak ez errepikatze-ko, ekintza denontzako irekia izango da aurten, eta ez da izango udalekuetako haurrentzako soilik. Beraz, herriko ume guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Beraz, preogia irakurtzeko haurrak zozketa bidez aukeratuko dituzte, 10:00etatik 10:30era. Ondoren, entzierroa hasiko da Plaza Handian, eta San Bartolome kalea zeharkatu ondoren, Errosario kaletik itzuliko dira Plazara. 11:30ean umeentzako tailerrak eta poniak izango dira. Azkenik, txorizoa banatuko dute.

David Condek errekor berria ezarri du Nahaste Borraste deman

Herri proba lau aldiz irabazi du elgoibartarrak

David Condek irabazi du aurtengo Nahaste Borraste. Bizikletan ondo moldatu ez arren, hanka arinak dituela erakutsi du beste behin ere. Errekor berria ezarri du, gainera: 18 minutu eta 25 segundokoa da. Aurtengoarekin, laugarrenez irabazi du proba elgoibartarrak. Lagun asko animatu dira aurtengo Nahaste Borraste egitera, 51 lagun guztira. Marka bikaina da, baina horien artean emakumezko bakar bat ere ez dela egon nabarmendu dute Kimetzeko antolatzaileek. Argazki gehiago, bideoak eta sailkapenak ikusteko: www.elgoiBAREN.net



Lehen hiru sailkatuak: Gabilondo, Conde eta Lariz.



Nahaste Borrasten 51 lagunek hartu dute parte. Irudian, partehartzaile guztiak proba amaitu ostean.



Karkizanon gora bizikletan.



Aurten ere heritar askok eman dizkiete animuak partehartzaileei.



Zakua bizkarrean hartuta, Gabilondo. Atzetik segika, Lariz.

Tenis txapelketako finala jokatuko dute bihar

Norgehiagoka 10:00etan hasiko da, Mintxetan

Bihar, zapatua, jokatuko dute 40-15 tenis txapelketako finala, 10:00etan hasita Mintxetako pistetan. Bertan jokatuko duten bi finalistak astean jokatutako finalerdietan erabaki dira. Lehenengo finalista, Gorka Merino izan da.

Eguaztenean jokatu zuten finalaurrekoa Gorka Merino elgoibartarrak eta Ermuko Iker Arrastegik IMHko pistan. Gorka Merino elgoibartarrak 6-0 eta 6-2 gainditu zuen ermuarra.

Bigarren finalaurrekoa gaur jokatuko dute 17:00etan hasita, IMHko pistan. Elgoibarko bi jokalarik, Javi Guallarrek eta Iñigo Araujok duten guztia eman beharko dute finalera pasatu ahal izateko.

Oraindik bigarren finalista zein izango den erabaki ez bada ere, argi dago bi elgoibartarren arteko lehia izango dela.

Elgoibarko 40-15 tenis elkarteak antolatutako txapelketan 300 partida in-



guru jokatu dituzte final handiaren aurretik.

Ikastaroetan bi toki

Bestalde, eguaztenean hasi zituzten udako tenis ikastaroak. Uztaileko lan egunetan emango dute, 19:00etatik 21:00etara, eta antolatzaileak pozik daude lortutako arrakastarekin: "la plaza guztiak bete dira. Baina oraindik baxakuetako taldean bi pertsonentzako lekua dago, beraz, izena eman nahi duenak 696 577 872 telefonora deitu dezake", azaldu dute .

CD Elgoibarrek 7.210 euroko superabita dauka

Krisi garai honetan, CD Elgoibarrak urtea 7.210 euroko superabitarekin amaitu du: 219.757 euroko sarrerak eduki ditu klubak, eta gastuak 212.546 eurokoak izan dira. Hasiarako aurrekontua murriztagoa bazen ere, denboraldian zehar Haundik lortutako emaitza onek egoera aldatu dute.

Igoera fasean sartzea lortu zuen Haundik, eta horrek gastuak handitu zituen. Horrekin batera, taldeentzako ekipamenduak erosi dituzte eta obrak egin dituzte lokaletan.

Bazkide eta babesle berriak

Sarreraren atalean, partidetak sarrerekin dirua lortu dute, eta Kirol Patronatuak eta Gipuzkoako futbol federazioak emandako laguntzak handiagoak izan dira. Bazkideak ere gehiago dira orain, eta babesle berriak ere lortu ditu klubak.

Bestalde, Realak 512.000 euro zor dizkio Elgoibarko klubari, eta diru kopuru horren zati handi bat laster kobratzea espero dute.

Denboraldia amaitu dutela ospatu dute Sanlokoek



Elgoibarko Sanlo eskubaloi taldekoek denboraldia amaitu dute, eta hilaren 20an afaria egin zuten. Bertan egon ziren jokariak, entrenatzaileak, gurasoak, zuzendaritza batzordekoak, Udaleko ordezkariak eta Gipuzkoako eta Euskal Herriko eskubaloi ordezkariak. Afari ostean, talde bakoitzeko jokari onenek oroigarriak jaso zituzten. Joan den zapatuan, hilaren 27an, Sanlo eskubaloi eskolakoek izan zuten denboraldi amaiera. 55 umek hartu dute parte eskolan, eta goizean gurasoen eta umeen arteko partidak jokatu zituzten. Kiroldegitik irten eta San Lorenzo auzora joan ziren, eta han bazkaria egin zuten. Guraso eta ikasleek artean, guztira, ehun lagun bildu ziren bazkaritan.

LANA

ESKAERA

- Frantseseko eta ingeleseko klase partikularrak, maila guztietan. Haur eta nagusiak.
☎ **688 683 274**
- Gizonezkoa edozein lanetarako prest. Orduka.
☎ **669 285 475**
- Familia euskaldunak *au-pair-a* behar du Londresen irailetik aurrera. Idatzi *mirenlondon@hotmail.com* emailera edo deitu.
☎ **00447768243191**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzko prest. Arratsaldez edo gauez.
☎ **648 192 683**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko, etxeko lanak edo edozertan lan egiteko prest.
☎ **678 939 382**
- Emakume gaztea, pertsona nagusiak edo haurrak eta garbitzaile lanak egiteko prest.
☎ **686 578 228**
- Emakumea etxeko lanak, garbiketa lanak eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **680 808 125**
- Pertsona bat behar da uztailen klase partikularrak emateko. Goizez. ☎ **615 787 118**
- Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxea garbitzeko prest. Orduka. Egun guztian zehar.
☎ **671 343 612**
- Emakumea, nagusiak zaintzeko edo etxea garbitzeko prest. Orduka. Egun guztian zehar.
☎ **671 476 869**

- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest.
☎ **680 916 466**
- Neska gaztea abuztuan lan egiteko prest. Edozertan.
☎ **606 169 667**
- Emakumea euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak, gaixoak eta ezinduak zaintzeko. Eskarmentua du. ☎ **615 762 742**
- Neska gaztea, lanerako prest. Haurrak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak, portalak edo tabernak garbitzeko lanetarako. ☎ **648 603 029**
- Neska gaztea, lanerako prest. Haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo ontziak garbitzeko.
☎ **657 142 376**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez ahal izanez gero. ☎ **943 743 251**

ESKAINZA

- Udako hilabeteetako finantza-matematikak ematen dituen irakasle bat behar da.
☎ **650 829 246**
- Zerbitzari bat behar dute orain ireki behar duten jatetxe batetarako.
☎ **679 155 980**
- Elgoibarko Udalak obren lantalderako hamar langile kontratatuko ditu. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 25era arte.
☎ **943 471 050**
- Sukalderako laguntzailea behar da, esperientzia-rekin.
☎ **943 121 262**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Santa Polan (Alacant) apartamentua alokatzen da. Udako hilabeteetan. ☎ **620 652 083**
- Benidormen etxebizitza alokagai. Erosoa, zentrikoa eta hondartzako 2. lerroan. Prezio onean.
☎ **943 740 628**
- Donostian etxebizitza alokagai, Egia auzoan. Abuztuan. ☎ **655 723 678**
- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxan). Erdigunean. Prezio onean.
☎ **941 341 437 / 676 882 373 (Esther)**

MOTORRA

- Bost ateko VW Polo 1.4 gasolina salgai, 5 urtekoa oso gutxi erabilia, gris metalizatua, aire girotua, oso ondo zaindua, beti garajeen, 22.000 km baka-rik! 7.000 euro. ☎ **675 007 661 (Dorleta)**

BESTELAKOAK

- Gasoilezko berogailua saltzen da.
☎ **943 743 505**
- Urrezko belarritako bat galdu da Banco Guipuzcoanotik Eroskira bidean.
☎ **943 740 365**


Badatoz San Bartolomeak !!!
Publizitatea jartzeko: 943 743 704



• Zorionak, **preziosi!** Guraso, amama eta batez ere ahizpa Juleneren aptez. Ondo pasa eta muxu pila!



• Zorionak, **prexiola**, atzo 4 urte bete zenituelako. Iker, Ariane eta Rosaren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Elai**, urtetxo bat bete duzulako. Muxu potolo bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Gorka**, hilaren 8an 5 urte egiten dituzulako. Musu asko familiaren eta anaia Anderren partez.



• Mila kilo zorion dizugu eskaintzen, urtebete duzulako betetzen. Muxu potolo bat.



• Zorionak, **Paula**, egun ona pasa zure 12. urtebetzean. Ondo pasa mendolan familiaren partez.



• Zorionak, **bikote!** Zapatuan ondo pasa ezazue koadrilakoen partez.



• Iritsi da mendeko ezkontza! Zorionak **Luis eta Oihana**. Familia, eta bereziki, Adrian!



• Zorionak, **Ekain** eta **Galder** zuen 5. urtebetzean. Muxuak etxeko guztien partez.




• Zorionak, **bikote**, azkenean iritsi da zuen ezkontza eguna. Inor ez da faltako, seguru. Muxu ederra koadrilakoen partez. Ondo pasa eguna!



• Zorionak, **ekaineko bi poxpolinei**, urtetxo bat bete zenutelako, muxu potolo bat ikastolako laguntxoan partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen zilarrezko eztejetan! Zuen lagunnen partez.



• Zorionak, **Markel**, zure bigarren urtebetzean, muxu potoloa familiaren eta bereziki Jakes eta Paularen partez.

QHARBA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.

Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, e **do barren@elgoibarkoizarra.com** e-postara bidali.

OKINDEGIAK

5 domeka **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 3 Zabaleta
- 4 Yudego
- 5 Yudego
- 6 Zabaleta
- 7 Etxeberria (Santa Ana)
- 8 Ibañez
- 9 Garitaonandia-Bidasolo
- 10 Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net



«La niebla»

3, barixakua: 22:30
(Plaza Handian)

3 barixakua

Dokumentala

19:00 'Fuego en el Tibet'

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Ondoren, Tibeteko kantu sakratuak

Musika emanaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

5 domeka

Erakusketa

10:30 Zestogintza

Altzolako zubibai elkarteak antolatuta, Zelaia parkean.

7 martitzena

Ikus-entzuneko

8:00 San Ferminetako

entzierroak

Kultura Sailak antolatuta, Iruñeko San Ferminetako entzierroak zuzenean eskaniko dituzte. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hilaren 14ra arte.

8 eguztina

Aisialdia

10:30 San Fermin txiki

Atxutxiamaikea Aisialdi Taldeak antolatuta, San Fermin Txiki eguna ospatuko dute. Ondoren, zezentxo eta poniak izango dira, Plaza Handian.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



BARIXAKUA 3

Udako sukaldaritza 17:00

ASTELEHENA 6

Filma 17:30

MARTITZENA 7

Azpeitira irteera 15:00

EGUAZTENA 8

Mintxetara irteera 16:00

EGUENA 9

Getariara irteera 10:00

GAZTELEKUKO EKINTZAK



**Uztailaren 14an
ikusiko dugu elkar.
Udalekuetan gaude!**

GIG

Gazte Informazio gunea

**Ekainaren 29tik aurrera
goizez bakarrik zabalduko da.
10:00etatik 14:00etara.
Udan ere informatu zaitez!**

7 urtetik gorakoentzat. Estatu Ba-
tuak, 2007. Zuz.: Frank Darabont.
Akt.: Thomas Jane, Alexa Davalos.
127 min. Maineko herri txiki batean
ekaitz bortitza izango da. Laino itsu

eta lodia sartuko da herrian, eta pix-
kanaka herriko etxeak, dendak eta
herritarak irentsiko ditu. Lainoak bi-
dean topatzen duen guztia txikituko
du. Beldurrezko filma.



Gure gomendioa

San Ferminetako entzierroak

Uztailak 7-14, 8:00etan, Kultur Etxean

Udaleko Kultura Sailak antolatuta, aurten ere San Ferminetako entzierroak zuzenean eta pantaila handian ikusteko aukera izango da. Uztailaren 7tik 14ra bitartean eskainiko dituzte, goizeko 8:00etan, hitzaldi gela.



Zerikasi

IKASTAROAK

Internet: E administrazio ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Kantsultatzeko
Hasiera data: 2009-07-06
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kantsultatu (943 738 828)

Marmolezko eskultura

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Ikasleen arabera
Hasiera data: 2009-07-27
Non: Deban
Izenemate bukaera: Uztaila

Diseinu grafikoko teknikaria

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-10-01
Non: Eibarren
Izena emateko: Kantsultatu 943 120 156 (Iñigo)

Bulegorako informatika aplikazioak

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-09-01
Non: Eibarren
Izena emateko: Kantsultatu 901 100 003 telefonoan

Sakonera txikiko buzea

Norentzat: Igerian dakitenentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-09-21
Non: Mutrikun
Izena emateko: Kantsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Hacia rutas salvajes»

4, zapatua: 22:30
Plaza Handian

7 urtetik gorakoentzat. Estatu Batuak, 2007. Zuz.: Sean Penn. Akt.: Emile Hirsch, Vince Vaughn, William Hurt, Kristen Stewart, Catherine Keener, Marcia Gay Harden. 140min.

Abentura, drama eta ingurumena uztartzen dira film honetan. Christopher McCandless gazte idealistak hiriko bizimodua utziko du Alaskara joateko. Aurreztuak dituen 24.000 dolarrek karitateari emango dizkio.

Gure berbak

Hiztegixa: bedarrak eta landariak (1)

Hiztegi-kontuekin segittuko dogu. Atalka-atalka, bedar- eta landare-izenen berri ematen hasiko naiz. Alfabetikoki emango dittut berbak.

Oharra: euskera batua eta gaztelania ere erabiliko dittut azalpenak eta baliokidetzak emateko. Berba bakoitzaren forma mugagabia eta mugatua emango dittut, zela erabili bihar diran hobeto adieraztiarren.

Aprobetxau nahi dot Juan Mari Elustondo adiskide fiñari eskerrik beruenak emateko, asko irakatsi didalako hiztegi-kontuetan (eta bai bestelakuetan ere) kaleume naizen honi.

- ◆ **AIXEN, aixena:** Landare igokari batzueri ematen jakuen izena.
- ◆ **AIZERI-BUZTAN, aizeri-buztana:** "Equiseto", "cola de caballo".
- ◆ **ALMITZ, almitza:** Lur pobrietan hazten dan bedarra, ganaduak ere jaten ez dabana.
- ◆ **ALPAPA, alpapia:** Argi-belarra, frantses-belarra.
- ◆ **AMETZ, ametza:** "Melojo", haritz mota bat.
- ◆ **ARBI, arbixa:** iz. Arbia. **Nabua** erabiltzen da gehiago.
- ◆ **ARKAZI, arkazixa:** "Acacia".
- ◆ **ARTABERDE, artaberdia:** Berdetan ebatzen dan artua, ganaduari jaten emateko.
- ◆ **ARTE, artia:** "Encina".
- ◆ **ARTO, artua:** iz. Artoa. **Artabizar.** *Artabizarra erretzen gendun gaztetan.*
- ◆ **ASKI-BEDAR, aski-bedarra:** Soruetan hazten dan bedar txarra. **Askixa** ere esaten jako.
- ◆ **ASTALARROSA, astalarrosia:** Sasi artean, basoan hazten dan larrosia.
- ◆ **ASTAPERREJILL, astaperrejilla:** Perrejill itxurako bedarra, lore zurixa dabana.
- ◆ **ASTO-OKA(R)AN, asto-oka(r)ana:** Okaran mota bat, heldutakuan kolore urdiña hartzen dabana.
- ◆ **ASUN, asuna:** "Ortiga".
- ◆ **AZELGA, azelgia:** Zerba.
- ◆ **AZKAR, azkarra:** Astigarra, "arce".

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1962

Aste honetako erretratu zaharra Juanito Gorostizak ekarri du BARREneko erredakziora. 1962. urteko argazki da, eta Pepein baserrian aterata dago. Santa Klara auzoan zegoen, gaur egun tanatorioa dagoen inguruan. Aizkorri deitzen zioten paraje horri, eta, akaso horregatik, ingurune horretan dago gaur egun Aizkorri kalea. Pepein baserrikoak herrira joaten ziren animaliekin, eta frontoian egin zuten gari-jotzea txangetean. Baserri horretan bizi aurretik, San Bartolome kalearen erdi-erdian zeukaten baserria, Gorroño denda zegoen lekuan. Familia oso ezaguna zen. Erretratuan ama eta bi semeak ageri dira:

Ezkerretik eskumara: Jose Mari Zubiaurre (†), Carmen Urkidi (†) eta Calisto Zubiaurre (†).



ESKERTZA

JOSE MARI ZUBIAURRE URKIDI

"Pepein"

2009ko ekainaren 25ean hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Lorezaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307





OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 25
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Ildoa) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

Goiz eta arratsaldez .

Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com



Leku eder

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30

15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia:

9:30-13:30

15:30-19:30

